

BALIABIDEAK

Gure enpresak, gainontzekoak bezala, funtsezko baliabideen bitartez hainbat gauza lortzen ditu; bezeroengana iristea, bezeroarekiko harremana mantentzea eta diru sarrerak izatea. Baliabide hauek hainbat ataletan sailkatzen dira; baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez hauek oso beharrezkoak direla esan daiteke hainbat arlotan. Esate baterako, ezinbestekoak dira produktuak fabrikatzeko garaian egon behar duten instalazioak, izan ere, hauek gabe ezingo liriateke produktuak ekoitzi. Gure kasuan, aipatu beharra dago, soilik beharrezkoak diren fabrikatzeko instalazioak eta makinak izango genitzukeela beste enprekin ditugun aliantzek jada baliabide eta makina horiek dituzteelako eta hortaz, guk ez dugu horietako hainbeste baliabide izateko beharrik. Eta horrek, materialetan gastuak murriztea ahalbideratzen du. Bestalde, bulegoei dagokionez, lan jarduera gauzatu, ideia berriak sortu, arazoiei aurre egin, bezeroak artatu edo-eta lana kudeatzeko beharrezkoak izango ditugu. Horrez gain, sistema informatikoari dagokionez, honen beharra dugu izan ere, gure weberako oso beharrezkoa da. Hau, gure bulegoan kudeatuko dute enpresako teknologia adituek. Hori dela eta, hitzaldiak udaletxei egitea bezalako baliabideak erabiliko ditugu gure produktua saltzeko. Hortaz, ez dugu salmentarako puntuaren beharrik. Azkenik, banaketa sareaz aliatu garen enpresa batek egingo du eta enpresa hori "Transvolando" da.

Bigarrenik, baliabide intelektualak ezinbestekoak dira baita ere. Baliabide honi esker, gure marka sortu eta gure enpresa logoa sortu dugu. Horrez gain, baliabide hontaz baliatuko gara gure enpresa modu eraginkorran zuzentzeko eta gure kasuan, Irati&Co enpresaren jabegoa bost pertsonen artean banatua dago. Gainera, gure enpresa ongi zuzentzeko ezagutza oso garrantzitsua da. Ezagutza hori bereganatzeko, enpresako langileak ikasketa ugari dituzte eta oso espezializatuak daude egin behar duten lanean. Gainera, lan esperientzia zabala dute, oso baliagarria dena enpresarentzat. Horietako batzuk, teknologian eta datu baseak aztertzen adituak dira eta hortaz, baliabide intelektual adina dago enpresan bezeroen datu-baseak aztertu eta beharrezkoak diren datuak ateratzeko. Horrez gain, eta Irati&Co-ren ideia oso berritzailea denez, patenteak edo-eta egile-eskubideak egitea ezinbestekoa izan zen, izan ere, gure enpresa gure produktua ekoizteko gai garen bakarrak gara. Azkenik, aipatutako ideia horren ekoizpena aurrera eramateko, hainbat enpresa edo elkarteekin

aliantzak sortu ditugu enplegutza sortzen dugun bitartean, ekoizpen prozesua gure enpresari errazteko.

Jarraitzeko, aurreko baliabideez gain, beste arlo batzuetakotara ere jo dugu proiektua aurrera ateratzeko garaian. Aipatutako arloa giza-baliabideena da. Aurrera aterako dugun proiektuaren giza-baliabide nagusia sormena izango litzake. Honen arrazoia, zakarrontziak sortzearen helburua izango da, izan ere, sormen handiko ideia berritzailea da, non gizartean dagoen arazo bat konpontzea dugun helburu. Ez dugu ezagutza handirik zakarrontziak eraikitzeke garaian, eta beraz zenbait enpresek lagunduko digute proiektua aurrera eramaten. Hala eta guztiz ere, proiektuaren beste alderdi garrantzitsu batean, alegia, aplikazioaren sorreran, gure jakinduria eta ezagutzak erabiliko ditugu garapenerako eta pertsonalizatorako, hau da, zakarrontziak alokatzen dituen herri bakoitzarentzat, aurretik sortutako aplikazioa pertsonalizatu behar dugu, eta hori orain arte dakigunarekin eta ikasiko dugunarekin egingo dugu.

Azkenik, finantza baliabideen beharra dugu gure enpresan hainbat alderdi borobiltzeko. Hauek, soldata ordaintzeko, negozioa zabaltzeko eta bestelako erosketak egiteko erabiliko ditugu. Hasiara batean, langileak edukiko ez ditugunez, gure etekinak enpresa-aliatuek utzitako materiala ordaintzen gastatuko dugu, alegia, gure enpresan bertan inbertituko dugu produkzioa hobetzeko. Material hau ahalik eta azkarren ordaintzen saiatuko gara enpresa hauekin konfiantza sakonago bat lortzeko. Honela, negozioarekin aurrera pausu bat emateko garaian, Euskal Herrian gure enpresa zabaltzeko aukera errazagoa eta arrakastatsuegia lortzeko aukera edukiko dugu. Hala ere, enpresa arrakasta edukitzen ari den heinean, guk bakarrik lana eginez gero ezingo genuke eskariari eutsi eta beraz, zenbait langile kontratu behar izango ditugu. Hauek noski, soldata baten pean. Horrez gain, bestelako erosketak egiteko intentzioa dugu gure enpresa hobetzeko, hau da, gure enpresan inbertitzeko izango dira erosketak hauek.

Julen Garmendia, Anje Irastorza, Irati Zarranz, Irati Salgado eta Xabier Urigoitia